

## *Miren Arantzeta Arregi*

*Elgeta, Gipuzkoa  
(1921-2011)*

Aurkibidea

**Biografia**



Urrejolaegizarra baserrian jaio zen 1921ean. Aita, Juan Cruz Arantzeta, bertakoa zuen; ama, Andresa Arregi, Aretxabaletakoa. Ama 13 urterekin neskame bidali zuten Zaldibarrera. Mirenek ume-umetatik lanean hasi behar izan zuen: amari etxeko lanetan laguntzen, Bergarara tratara joaten eta abar. Gaztetan neskame egon zen bera ere Bergaran. Pedro Gorrotxategirekin ezkondu zen.

# Zintak

## ELG-003

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-10-20
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Irisarri, Estitxu

## ELG-004

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-10-20
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV

# Pasarteak

## 1. 1921ean jaiotakoa Elgetako Urrejolaegizarra baserrian

- **Erref:** ELG-003/001
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

<p>Biografia. 1921ean jaiotakoa Urrejolaegizarra baserrian. Ubera auzotik oso gertu bizi ziren eta elizara edo eskolara bertara joaten ziren. Aita arotza zen.</p>

### Transkripzioa

- ... kontaidazu pixkat nun jaixotakua zaran, ze urtetan jaixo ziñan...  
- Bai. Mil novecientos veintiunuan jaio nitzan eta Elgetako, hemendik Bergara aldera, barrenengo baserrixa da, hemendik Bergarara beherengua. Elgetai pertenezitzen jakon baserrixa [beherengua] da nere etxia. Handik aurrera Bergarara tokatzen da.  
- Eta ze izen daka?  
- Nire etxiak dauka Urrajalegi Zaharra, baserrixak.  
- Ondiokan zutiñik dao?  
- Bai. Ondiokan zutiñik dau, nere anaiena da ya. Gurasuak anaiari zertu zotsan, heredau zotsan. Gu ezkondu giñan ta alde giñan handik eta anaia, nere anaia da haren jabia. Bai.  
- Orduan, Bergaratik gertu-gertu...  
- Ez. Uberako barrixotik dau gertu-gertu.  
- Hori da. Jokeria bertara juateko.  
- Bai. Eta elixara be juaten giñan Uberara gu. Nere aitta zan arotza eta hartu zeban parte, umiak hurrao euki deixen eskolia, hartu zeban parte Uberan. Biharra ein ta pagau ta ein zittuan han gauzak eta hartu zeban

parte umiak hobeto eukitzeko Uberara juatia. Ha daukau hurrian, Elgeta urriñao. Ta horretxeaittik ni zazpi urtekin sartu nitzan Uberan eskolan. Bai.

- Zazpi urtekin?
- Bai. Zazpi urtekin. Eskolan sartu ta komuniua eitten zan zazpi urtekin.
- Oseake, eskolara juan ta kumunixua ein...
- Eskolara juan ta kumunixua ein, urte bardiñian. Bai.

## 2. Elgetatik Eibarrera doan bidea eskuz egindakoa

- **Erref:** ELG-003/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

### Laburpena:

<p>Lana aurkitzea oso zaila. Elgetatik Eibarrera doan bidea eskuz egin zen eta jendea behar zenez, bi anaia bertan hasi ziren.</p>

### Transkripzioa

- Orduan ume asko etxian, ez?

- ... ume asko, ume asko, eta iñun be ezin kolokau jentia. Orduan ez zeuan taillarrrik oingo moduan eta hemendik Eibarrerako kamiñua eitten be ibili zran bi anai. Ezin...

- Zure anaiak?

- Nere anaiak. Bi. Hemendik Eibarrera. Batak eukazen, ez dakit, hamasei urte ta bestiak ez dakit zenbat eukiko zittuan. Hogeta bi edo hogeta hiru edo nausixenak eukiko zittuan. Ta ibili zian hemendik eta Eibarrera dauen karreteria eitten bi anai ibili zian.

- Eskuz.

- Eskuz. Dana eskuz. Ta bazkaixa hartzen zebeu basarrixan eta hemen, badakixu, ixa Eibar onduan-ta ebizenian lanian, etxera juateko urrin, ta harik eta illuntzira arte ez zian juaten etxera.

- Eta hori ze eitten zan, herriko jentia...?

- Herriko jentia ibili zan hori eitten.

- Zelan organizau zan hori guztiori?

- Herriko jentia ibili zan kamiñua eitten. Beste batzuek be bai. Mordua, eren kontratistiakian. Ta pagatzen zotsen ta pozik nunbaiten pixkat irabazten zanian. Porke akordatzen naiz, aittak oillaskuak-eta erregalatzen zotsazen hemen abade bati erregalatzen otsan, oillaskuak-eta. Bai? Ta Altos Hornos-en sartzia nahi Bergaran, ba, pixkat dirua irabazteko, ta ez zeban konsegidu. Abadiak be ez zeban konsegidu. Don Leocadio Guerra zan orduan abadia Elgetan. Hiru abade egoten zian, e, Elgetan. Hiru abade.

## 3. Aita arotza; etxegintzan ere jarduten zuen

- **Erref:** ELG-003/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:07:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena:**

Aita arotza zen. Etxegintzan eta baserriko tresnak egiten jarduten zuten. Amaren zereginak. Baserrietan dirurik ez.

**Transkripzioa**

- Umetan, basarrixan-eta...  
- Basarrixan jolas pilla bat.  
- Eitten zenduezen? Aitta, esan dozu, arotza zala...  
- Aitta arotza zan, bai.  
- Ama basarrixan.  
- Ama basarrixan. Baiña aittak be, arotza, baiña ez zan... ibiltzen zan, holan, baserriko arregltxuak-eta eitten, ezta? Baiña, ostian, etxeko zerak eitten zittuan. Eitten zittuan sillak, eitten zittuan bankuak, eitten zittuan banastak, konpontzen zittuan baztarrak, eitten zeban teillatua arreglau... Aitta. Aitta oso...  
- Eta ze ibiltzen zan, orduan, etxegiñian? Pixkat, ba, basarrixetan...  
- Bai, basarrixetan. Deitzen bazotsen, ba, orduko arregluak izeten zian ganauen jateko askak-eta ifiñi ta holakotxe gauzak eitten. Baserriko trastetxuak konpontzen. Ta ibiltzen zan hortan be. Aitta maniosua zan, oso maniosua zan. Bai.  
- Eta ama? Basarriko...  
- Amak baserriko lanak. Soluan ta... Aittak be bai soluan ta danian, e? Baiña hamar ume daukazenak zenbat lan eingo dau soluan? Haren jatorduak preparau, ta harei galtzetiñak ein, ta haren erropak konpondu ta txikixakin haundixa ein ta haundixakin txikixa ein... Nahikua zeregin eukiko zeban harek danak tapatzen. Ta diru gutxi. Ta dirurik... eske, basarrixan ez zeuan dirurik. Mantentzeko lain. Ta txahaltxo bat noiz edo noiz saldu, txahaltxo bat, ta haretxekin, ba, onbre, zulotxuak tapau ta ogixa gehixao erosi... Etxian ezin hartu danendako lain ogi be; erosi ein bihar pare bat hillabetian. Ogixa erosi egin bihar kanpua. Ogixa ta ardaa ta olixua ta txokolatia ta gauza asko dare erosteko.

**4. Baserrietik Bergarara tratura**

- **Erref:** ELG-003/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Bergarara tratura Miren joaten zen. Esnea, sagarrak, babak, patatak... saltzen zituen.</p>

**Transkripzioa**

- Orduan herrira juaten ziran, Elgetara edo Bergarara, zeoze saltzen?

- Bai, bai, bai. Saltzera Bergarara. Bergarara.

- Eta zein juaten zan? Ama?

- Ama ezin zan juan. Denporatxo baten neu juaten nitzan. Esnia eruaten neban, sagarrak eta patatak, baba pixkat... Ta eruan ta plazan diru pixkat hartu. Ama pozik egoten zan: "Eneee... oin be ekarri don, neska, pixkat", eta. Bai. Gero etxeruzkotan txokolatia ekarri, kafe pixkat, ogitxua... Falta dianak eruan. Ta oso zintzua nitzan, gaiñera, e? Ezta... ez neban gastatzen duro bat be ez bidian, e! Amak esateko eukitzen zeban: "Hau fiñaua da ez dakit zer baiño". Bai. Ta etxerako ekartzen nittuan trastetxuak eta tira! Sagarrak-eta, arbolapian sagar pilla bat eta... patatak-eta horrek bazeren, babia be bai, baiña dirua falta. Ta gauzak etxian bihar dia halako kuadrilliak. Ta, gaiñera, ama kozineratxua ta ondo konpontzen zana zan. Umien gobernadoria-ta zan oso, umien gobernatzaillia-ta. Bai. Zartaiñian ifini olixua ta txitxartxuak eta danendako arrautza bana ezin allegau, eta ifini arrautzatxo bana ta, aunke sea, txitxartxo bat arrautza erdikin ta... Ni egixa esaten nabil, e! Hor etortzen badia, ez badia neri ez dosta inporta, e! Ni nabil pasautakua esaten, pasautakua.

- Zeu juaten ziñan Bergarara...

- Bai. Hamabi urtekin ya...

- Bezeruak zekazuzen?

- Baitta bezeruak...

- Ala plazara zuzenian?

- Plazara be bai, ta bidian be bai, e? Bidian be ezautu eitten giñuezen bai? Ta Mugertzako tontorra euan entradan. Oin handik hona einda dao beste Bergara bat, baiña orduan Mugertzako tontorra zan entradia Bergarakua. Mugertzako tontorra. Eta [han] ya klientiak baneukazen, e? Bai. Itxeitten egoten zian. Eta sagarrak-eta onenak harrapau eitten ostezen plazara orduko, apartau ederrenak eta. Baiña hareri gehitxua kobrau, ta gero plazan merketxuago ifiñi ta holakotxiak ein bihar. Baiña umiekin-ta jentia okerra da, e? Ni ondiokan gaztetxua, hamabi urte. Zer? Hamahiru urte, biherrera fan baiño lehenao zan ta. Ta fan ein bihar. Amak... hamar ume eukittako andria, bidetan ezin ibili be ein, ya estropeauta dao. Eta, ba, neu. Lau mutil neukazen aurrian ta neu nitzan. Han, zenbat eskola ikesiko neban, e? Horrek danok eindra ibiltzeko... e? Zenbat eskola? Dividir ezin ondo ein. Ezin ein dividir be ondo. Multiplicar, ta restar ta sumar, ta dividir ezin ikesi ondo.

- Espaiñiako mapia ondo, baiña.

- A! Espaiñiako mapia.

## 5. Eskola kontuak

- **Erref:** ELG-003/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

<p>Uberako eskola kontuak. Irakaslearen inguruko azalpenak.</p>

### Transkripzioa

- Espaiñiako mapia ondo, baiña.

- A! Espaiñiako mapia. Aii...! Geunkan maistria, geunkan ezkondua, lau ume daukazena: Luis, Lola, Kasimira eta txikixenak ez dakit zela eukan

izena, Manolo edo. Lau ume eukazen. Ta nausixenak, hamazazpi bat urteko mutilla. Ta bere gizona zan maisua. Ta aldemenian maisua ta maistria, bi eskola, ta andra-gizonak. Ta ni oin akordatzen naiz ze pasatzen zan. Ertortzen zan goixian bederatziretan, "ra!-ra!" Atia zabaltzen zan, "rrrraaa!", danok barrura. Ta pixkaten leitzen giñuan manoeskritua-edo, eskuz eskribidutako liburu bat, gorri-gorrixa zan ondiokan, eskuetan danak ibilita gastau-gastau eindakua. Han eskribitzen giñuan ta "Bueno, ahora coger el palo y..." mapia, Espaiñiako mapara. Nik Espaiñiako mapia ikesi neban...! Baiña, nun dauen errekek, nun dauen tontorrak, nun dauen sakonunak, nun dauen probinziak eta nun dauezen danak! Buruz! Danak, danak, danak. "Ya sabía todo", ta Franzia nun dauenik ez. "Oye", e? Franzia nun dauenik be ez. Ta han geiñekaldian letrerua, Franzia, ezta? Ta sekula ez zoskun esan ha Franzia danik. Gu denporia pasatzeko gu ifintzen giñuzen han, ta bera gora fan. Lau ume ta andra-gizonak sei lagun, ta harek ein baiharko zeban jatordua ta jabonaduria, holan, jabonaduria. Ez oingo moduan, entxufau ta aide! Eta ezkututzen zan ta, ba, ordu ta erdi baten maistria falta zan. Ta gu, bixen bittartian, geure paluorrek in alkarri takateko batzuk emon eta mapiai begira.

- Maisuak zer ziran, kanpotik etorritakuak?

- Kanpotik etorritakuak. Erdeldunak. Erdeldunak, porke orduan maisuak ekartzen zittuen erdeldunak, guk pixkat erderaz ikesteko. Ta leitzen be erakusten zoskuen erderaz. Baiña jakin bapez erderaz, "ni tu tía". Ezebez. Aii, ni akordatzen naiz, komoda gaiñeko trapua zan nere bordaua ein bihar nebanoi. Atsaldian laboria. Goizetik hortan pasau, ta gero atsaldian laboria eitten. E? Batzuk eitten zeben, ba, pañelua; beste batzuk kortiñia; ta beste batzuk komodian gaiñekua. Komoda gaiñekua ixa gehixenak, porke hori zeuan, itxuria, komodak [erezen] etxietan, ta komoda gaiñekua. Nik ein neban komoda gaiñeko bat, ondio be ikusten nao. Harittan sartu notsan ez dakit zenbat: marroia ta berdian... ondio be ikusten nao, e! Koloriak bai polittak, e? Hori bai. Oso kolore polittak. Tontorrak ein notsazen bordautan. Tontorrak eta tontorrak. Ifiñi notsan harittan... pilla bat! Haixe eitten pasau neban... nik hiru bat urte eingo neban ha eitten! Ha zan ona! Holako maistria tokau egin bihar da norbera parian dauenian, e? Ezebez. Ezebez ikesi. Ez esplikaziñoik, ez Franzia nun dauen, ez illetargixa nun dauen, ez euzkixa urten bihar daben... ezebez. Denporia pasau eskolan.

- Kabuak eta golfuak "de España".

- Bai. Horixe. Jo...!

- Klasiak, argi dao, erderaz izango ziala, ez?

- Bai, bai, erderaz.

- Eta euskeraz edo...

- Euskeraz ezebez.

- ... entzuten bazetsuen, zeoze...

- Ez, ez, ez geunkan kastigurik, ez geunkan. A! Ta rekreua ein bihar zan bixen bittartian. Gero, hamarrak aldian rekreua, beste ordu erdi bat rekreua han. Ta alkar harrapatzen ta karabaka ta orduan zan, aide-aideka ta, holan, lurrian ein arraixak eta "ri-ri-ri", holan, arraixak, eruaten harrixa. Ta arraixiari ikutu barik han erdixan ifintzen. Hori be bai: aide-aide. Ta karabaka [...], alkar harrapatzen. Bueno...! Ta nik asko ein dot tortoloska, tortolosakin.

## 6. Tortolosak

- **Erref:** ELG-003/008
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:14:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>Tortolose tara asko jolasten zuen.</p>

**Transkripzioa**

- Pelotia gora bota ta buelta emon.
- Kanturen bat eitten zenduen tortoloseri buelta emoteko ta?
- Bai, bai.
- Gogoratzen dozu pixkat zelan zan?
- Asajiak, akarniak, akuluak eta aponiak. Lau izen euken.
- Aponiak, asajiak, akarniak eta... akuluak?
- Akuluak uste dot ziala bestiak. Bai.
- Eta zelan eitten zan? Pelotia bota, kanturen bat edo zeoze esaten da?
- Ez. Asaje bat, bota gora pelotia, gora bota ta han goixan dauen bittartian, behian tortolosai buelta emon bihar jako, eta ifini bihar da tente. Ta jausten bada galdu dozu. Ta zeure laguna gero, txandaka. Galtzen dozunian, laguna. Eta oso politta zan, e?
- Esaten dozun izenen aldera ipiñi bihar dozu.
- Izenen aldera.
- Eta izen bakoitza ze zan?
- Izen bakoitza diferentia.
- Akordatzen jatzu, asajia, apona, ze...?
- Bai. Ez dakit, ba, lehelengua zela zan.
- Ni neu be jolastuta nao, e?
- Bai, hori be jolastuta. Nik asko jolastu dot hori. Hori gure umetan oso popularra zan.
- Hori ze izaten zan, negu partian gehixao, ez?
- Guk ez giñuan negua ala udia zer dan, guk jarri ta ekiñaldixak eitten giñuzen, nahiz neguan, nahiz udan, e! Orduan ez zeuan plaiara faterik eta, e! Plaiia nun dauen be ez genkiun, Deba nun dauen be ez. Baten fan nitzan, e! Baten fan nitzan eskursiñora.
- Umetan?
- Bai, umetan.

**7. Debara hondartzara**

- **Erref:** ELG-003/009
- **Iraupena:** 0:06:52. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:21:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

**Laburpena:**

Debara hondartzara joan zenekoa. Bainujantziak. Erromeriara Arratera.

**Transkripzioa**

- Plaiia nun dauen be ez genkiun, Deba nun dauen be ez. Baten fan nitzan, e! Baten fan nitzan eskursiñora.
- Umetan?

- Bai, umetan. Baiña edarra pasau jatan! Bai. Soiñeko bat nekan, ta bera, nere fan biharran fan biharrakin, bidian labanduta fan nitzan lokatza artian, holaxen, paparran gaiñian. Ta buelta ein da atzera negarrez etxera. Fan bihar nitzan Debara eskursiñora Eta Uberan zeuan autobusa. Ta ni basarrittik Uberara jua bihar. Ta amak ifiñi zotan bazkaixa zapata kajan. Zapata kaja baten ifintzen zotan bazkaixa. Eta jantzi neban soiñekua, aldemeneko nere lehengusiña batek erregalautakua, gaiñera. Ondio ikusten nao: zan azul cielua eta ojatxo batzuk eukazen zurixak. Oso politta, kaidiakin ta dotoria neukan. Kuello zuritxuakin ta politta. Baiña haixe nekan bakarrik fateko modukua, bestiak zatartxuak zian. Eta amak ifini bazkarixoi eta banoia abixada guztian autobusoi hartzera, ta eitten dot laban holako lokatza-arte baten, ta faten naiz paparran geiñian. Ta zikintzen naiz paparra. Buelta ein ta atzera etxera, eskursiñora ezin jua ta negarrez. Ta amak soiñekua etara, garbittu, su-onduen --orduan sua, ez zeuan besterik ezer, ta--su onduen ifini, su haundi bat eindda, sikatu ta ondio harrapau ein neban autobusa. Eta itxeitten neri egon zan, porke ikusi eitten niñuen autobusetik aintxitxiketean bidian noiala. Bidian ikusi eitten niñuen eta itxein ein osten. Ta automobillan gaiñian jua nitzan Debara, behia beteta zeuan ta. Automobillan gaiñera euan eskillaria, bai? Ostian eukan autobusak eskillaria. Orduan autobusak eskillariakin [erezen], ta "rrraaa!" ta gaiñera igo notsan ta bai pozik! Beste batzuk be [bazerezen] han, gaiñien. Debara.

- Ta ze inpresiño?

- Baneban nik erretratua be Debakua, baiña bueno...!

- Eta Debara heldu eta ze...?

- Debara heldu eta gero plaiara. Aiii...

- Ta hondartzia ta itsasua ta...

- Bai. Itsasua. Ta ni denporaldixan egon nitzan bildurrakin. Debako plaiak eukan --oin be ez dakit zela dauen, ez naiz fan aspaldixan--, eukan murallatxo bat. Han... zela da ha, txurrerixia esaten gontsana? Txaletxo baten modukua, txurrerixia. Ta haren onduan murallia; plaiiak azkena murallatxo bat. Ta han jarri ta beittu ta beittu. "Etorriko ete dok hori honutzao". Olatuak etortzen zian, ba, "rrrrraa", ta harutzatxuao geldittu. "Ta hori etorriko balitzok honutzatxuao, zer?" Ta, porsiakaso, petrillan barrukaldetik denporaldixan egon nitzan begira, inpresionauta. "Hori dok... hori da itsasua haundixa! Enee...!" [Han ikusten dana] ta neuri halan pentsatzen jatan ta. Egonaldixa ein, ta gero konfianzia hartu giñuanian, fan aretara ta, ba, hankak busti ta han ibili giñan. Ez naiz akordatzen bañau giñanik. Euki ein bihar da, baiñadorerik ez dao.

- Orduan ez...

- Nik hogeit urte neukazentian be, Deban, baiñadoredunik ez zeuan. Fan Debara ta txabolatxo baten beste batzuk usautako bañadoria jazten giñuan. Han egoten zian eseitta, sikatzen. Han polittena pentsatzen dana hartu tenderetian ta jantzi. Ta hori haundi ein ta gero, e! Hori hogeit urtekin, e!

- Bai, pentseizu gaztetan... [...]

- Erretratua etara giñuan, frontoi baten etara giñuan erretratua, porke akordatzen naiz, eskillarak, eskillarak, eskillarak, bai? Eta aurreko puntan etzindda nao ni erretratuan, bestiei ez traba eitteko. Ta haretxekin soiñekuakin. Baiña ha baserrixan geldittu zan. Ni ezkondu nitzanian, laga nittuan baserrixan traste guztiak eta ez dosta falta ein. Ta oin akordatzen naiz, harek gaztetako erretratuak. Zenbat lekutan etarata erretratuak...! Erromerixara juaten nitzan guztian! Bai. Arratera be jua nitzan, bederatzit bidar illaran Arrate egunian solteratan. Orduan holakotxe erromerixetara juaten giñazen.

- Bai, hemen inguruan, gaiñera...

- Hemen inguruan.

- Hor, Deban, esan dozu, hondartzan, txabolatxo moduko bat zeuala...

- Bai, egoten zien txabolatxuak. Zereko... egurrezko txabolatxo batzuk egoten zian. Bai.

- Eta gizonen bat egoten zan zaintzen?

- Bai. Gizonak eta emakumiak be bai. Ta harek baiñadoriak alkilau eitten zittuen. Hutsa dirukin alkilatzen zittuen. Eta zu bañau ta lagatzen dozunian, emoten zotsen astinddu bat ta atzera eseitzen zittuen. Soka bat egoten zan txabola batetik bestera, ta han soka botatzen zittuen sikatzen. Ta hurrengo doianak berak pentsatzen dabena hartu eta jantzi, ta pagau ta holaxe zan orduan. Batak tirantiak luzeegixak, bestiak hau zabal-zabala... Bueno...! Milla personak ibilittako erropak.

- Gogoratzen dozu, sokaren bat-edo zeuan neskak saltoka eitteko itsasuan...?

- Bai, bai, egoten zan sokia. Hari obatuta, bildurra baldin badaukazu, sokia egoten zan, baiña, baiña egoten zan, igual, laurehun metruan be igual, e! Sokia. Bajatzen zanian itsasua ifintzen zeben, itxuria, gogortuta. Ta soka gogor-gogor bat egoten zan ta hari obatuta, bildurra eukanak, haritxi obatuta baiña. Bai. Ta nik igarixan ikesi ein neban, e!

- A, bai?

- Gero, haundi einddakuan faten giñazen gehixaotan. Nobixotan be bai faten giñazen. Ta gero, ikesi ein neban igarixan, uretan fateko bestian ikesi ein neban. Ta, holan, "a la plancha" egoten be bai, behetik gora begira. Geldi-geldixan, e? Ta zuk arnasia nasai hartu ta egoten bazara, gein-gein-geiñian egoten zara. Ta larritzen hasten bazara, "dzast" sartzen zara barrura. "¿Qué cosa!" E? Nerbiosoa jartzen bazara, "dja!" hunditzen da.

- Gorputza, ezta?

- Bai. Eta egoten bazara trankil... Zuk horrek ondo dakixuz, igarixan ondo jakingo dozu ta. Bai. Baiña...

- Esan, esan...

- Bai.

## 8. Aitak 'Euzkadi' egunkaria irakurtzen zuen

- **Erref:** ELG-003/010
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

<p>Irratia lehenengoz noiz entzun zuen. Aitak irratia entzutea eta egunkaria irakurtzea gustuko zituen.</p>

### Transkripzioa

- Ezta radixoik be ez! Ez zeuan radixoik be. Begittu, lehenengo entzun nebanian radixua Bergaran kriada neuala entzun neban. Lonbiden tabernia genkan geure behian. Eta "Mi jaca" ta kantatzen zeben radixuan. Aiii... Ha zan politta! Musika batzuk ederrauak...! Orduan, e? "Soy soldado de levita" ta... Ez zian... Entzun dozu baten be?

- Ez.

- Ez. Ta "Mi jaca" entzungo ziñuan.

- Pentsatzen dot baietz.

- Bai. Ordukotxiak. Hasieran, e? Hori, radixua. Ta nere baserrixan bastante... Nik hoge urte neukazenerako bazeuan radixua. Bai. Bazeuan nere baserrixan. Bai. Bazeuan radixua, porke aitta, gure aitta, zera zan, prosperotxua zan. Beste gizon batzun onduan, e! Periodikua be egunero leitzen zeban.

- Bai, hori kontau zestazun. Ze periodiko hartzen zeban?

- Euzkadi. Ondiok be ikusten nao harek periodikuak zelako "Euzkadi" haundixa eukan letrerua. Euzkadi. Eta berak eta aldemenian bere lehengusua bizi zan baserrixan. Baserrixa zan bi...

- Bi bizitzakua?

- Bai, bi bizitzakua. Gure aittittak, bi mutil ezkondu zian eta baserrixa ein zeben erdittik bi. Baserrixa haundixa. Terrenuak eta danak ein zittuen erdittik bi. Ifini... parzelak ifini eta ein zeben erdittik bi. Eta gero sorteau, ta tokau jakonai tokau jakona. Eta aldemenian nere aittak eukan lehengusu karnala: Evaristo Aranzeta. Ta nere aitta zan Juan Kruz Aranzeta. Eta periodikua bixen arte hartzen zeben. Ta aste batian tokatzen jakon lehelengo leitzia batai, ta hurrengoko astian tokatzen jakon lehelengo leitzia bestiai. E? Ta holaxe konpontzen zian. Ta pagatzen zeben bixen artian. Ta orduan periodikua nork leitzen eban, ba?

- Hori esan bihar netsuan, ...

- Nork leitzen eban, ba, periodikua?

- ... nun lortzen zeben periodikua? Eurak erosten zeben...?

- Ekarki eitten zeban karteruak Uberara. Ta gu eskolara goiezenian rekogitzen giñuan Uberan periodikua. Ta gero etxeruzkotan kartak be alleatzen zian. Asko ez, baiña kartak be alleatzen zian. Nere aittak eukan anai bat Ameriketara eta kartia, ba, urtian bat edo alleatzen jakon, karta bat. Haren notiziak alleatzen zian.

## 9. Ameriketara lanera

- **Erref:** ELG-003/012
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:29:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

<p>Osaba bat Ameriketara joan zen lanera. Garai batean baserrietatik jende asko kanpora irten behar bizimodua topatzera.</p>

### Transkripzioa

- Badakizu zuk zelan juañ zan tio Ameriketara? Zegaittik? Hemen lanik ez zeualako edo...

- Hemen lanik ez dauelako fan zan.

- Eta ze...? Ganau zain edo...?

- Bai. Lehelengo hasi zan pastore eta gero erosi zeban hoixe fnkioi. Beren terrenuak ifini zittuan. Ez dakit, harako igual txikixe izengo da, baiña Ubera [danau] daukazen terrenuak badia, dezente dia. Ta berak zeukan ganauekin ta negoziua zekan. Ta ondo zeuan. Ta ez zan ezkondu, soltero geldittu zan. Berak kartan eskribitzen zoskun. Karta bat eskribitzen zeban, bi bider leittu bihar ta bi lagunek leittu bihar, porke eskribitzen txarto!

Eskola gutxi ikessita, ez dakizu? Eta faltak. Eta batak leitzen zeban ta: "Honek hauxe esan gura dau". Ta gero bestiak: "Ez juat hau entenditzen! Hau zela ete dok?", "Ba, horixe esan gura dau". Eta holaxe leitzen zan haren kartia. Fijate... Pobre!

- Orduan jente asko, edo bueno...

- Orduan hemendik jua zian Ameriketara kasik etxe danetatik fan zian. Porke jaiotzen zian hamar bat ume jaiotzen zan etxe bakotxian orduan.

Badakizu, orduan ez zan oingo moduan. Orduan dana zan pekatua, gauzak ein bihar dia ondo, ta gauzak ondo ein ezkeriok enbarazada zare! Eta etxe bakotxian jaiotzen zian... Abadiak aintzen eban, ta abadiak esaten zeban religiñua. Infarnu haundi bat dao, ta gauzak ez badittuzu ondo eitten infarnura zuzenian. E? Ointxe be hartuko litzakek hamen infarnu bat aber pixkat sustatzen dan jentia. E? Ta orduan? Pentseizu hain denpora gutxian ze alde. Ta jentia zeuan sobra, mantendu ezindako beste jente etxian.

- Oseake, batzuk Ameriketara, beste batzuk...

- Hemendik ameriketara orduan faten zan. Hemendik ez zeuan Galiziara ta faterik, e! Galizian gu baiño txartuao erezen ta. Gero etorri zian Galiziatik hona pillat bat.

## 10. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ELG-003/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Bergarara tratura. Baserriko bizimodua; jatekoa.

### Transkripzioa

- Ama, orduan... Basarrixan nahikua lan eukiko zeban, ez?

- Nahikua lanekin ama.

- Zu, esan dozu, plazara-ta juaten ziñala. Ta momentu baten esan dozu andrak, gaiñera, nahiko...

- Bai, nahiko okerrak zian. Bai. Andrak erruki... "Hay de todo", klaro, danerakuak daoz, ezta? Baiña piratatxuak be bai, e! Etorri eta onenak, eta dozena bat sagar hartutakuan: "Oin bi propina". Ta "tak!" eta beste bi hartu ta holakuak. Bai. Bueno! Bueno! Ahal dan tranpa danak eitten zittuen. Baiña danak diru barik zeozen, danak dirua falta zeben. E? Hori da markia, e! Danak pobre. Bai.

- Orduan, okerrak bazeren, baiña...

- Okerrak be bazeren.

- Baiña, bueno, ondo konpontzen ziñan, ez?

- Bai, bai, bai, konpontzen nitzan.

- Gazte-gaztia izateko...

- Bai, bai. Beti sobratzen zan, etxera ekartzeko diru pixkat beti gelditzen zan. Ta ama eskerrak emoten egoten jatan beti: "Eneee, eskerrak, ume! Eskerrak, ume! Eskerrak!".

- Zuek basarrixan garixa-ta ereitten zenduen?

- Bai. Garixa, artua, patatak... Eta keixak egoten zian, sagarrak be bai, melokotoiak... Horrek danok. Fruta guztiak. Ta gero ortuko gauzak: azak eta porruak eta horrek be bai. Horrek danak eukitzen... Konejuak be bai, koneju

mordo bat be bai! Aittak einda konejotegixak egoten zian, aittak einda, konejuak, berendako txabolatxo-txabolatxuek eindra. Oilluek be bai: arrautzak, txitak etara. Ta oillo-lokiakian txita pilla bat. Ta gero, oillua, domeketan oillo bat hil ta oillo-saldia garbanzuakin. Ta hori be bai. Arroz-zopia ein, frituak be eitten giñuzen.

## 11. Laietan nola egiten zen

- **Erref:** ELG-003/015
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

### Laburpena:

Laietan egiten ikusi zuen. Etxean golda erabiltzen zuten, baina inguruko baserriren batean laietan egiten zuen.

### Transkripzioa

- Laixetan-eta ein zenduan zuk edo ikusi zenduan eitten laixetan?  
- Bai, ikusi dot. Ikusi dot, bai. Ikusi dot. Holan, sartu goittik behera burdiñak eta holan ein lurrai ta "rra!" doblau. Bai, hori be bai. Ikusi dot. Etxian gutxi ikusi dot hori. Etxian ikusi dot goldiakin buelta emoten lurrai ganauekin. Hori da adelantu haundixaua. Bai. Baiña laixetan be badakit nola dan. Hori be bai ikusi dot. Illaria, igual, jarritta. Persona illaria jarritta, sartu burdiñak lurrian...  
- Ta danak batera...  
- Bai. Ta gero danak batera buelta emon lurrai. Hori be bai.  
- Inguruan, baiña? Basarri inguruan edo...? Nahi dot esatia, ikusi zenduala hemen bertan, Elgetan?  
- Neure etxian hori gutxi ikusi dot, baiña beste batzuei ikusi dotset eitten. Ikusi dotset.

## 12. Elgetako baserrien bilakera

- **Erref:** ELG-003/016
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:34:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Elgetako baserrien bilakera.

### Transkripzioa

- Basarrixa ze zan? Zeuena, orduan, ez?  
- Bai, bai, geure basarrixa. Gere basarrixa zan, bai. Gere basarrixa.  
- Hemen Elgeta inguruan-ta basarri asko zeren...  
- Enee! Elgetan erezen hirurogei baserri. Ondiokan gaur goizian nere gizonak esan dotsa emakume bati. Hirurogei baserri erezen ganauekin, soluekin, garixekin, patatiakin eta etxian hartzen dian gauza guztiekin bizi

zianak. Hirurogei baserri. Ta hirurogei baserritik gaur iñor be ez da bizi baserritik. Iñobez. Danak bizi dia kaletik. Ta batzuk arreglau dabe baserrixa ta beste batzuk ez dabe arreglau. Ta beste batzuk ein dabe eren terrenuan semiandako txaleta be bai. Hori be bai. Baiña ondiokan aitta Pedrok esan dau, gaur goizian esan dosta --bestia ez dakit zeñi esan dotsan--, hirurogei baserri Elgetan eliminau dia ezebezera.

### 13. Gariaren inguruko lanak

- **Erref:** ELG-003/018
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

#### Laburpena:

<p>Elgetako baserrien bilakaera. Gari-jotzea. Gariaren inguruko lanak. Errota.</p>

#### Transkripzioa

- Esaten dozu, oin hemen inguruko basarrixak galduta darella edo, behintzat, jorjala kanpotik etortzen dala basarrixetan.

- Bai, bai, bai. Iñor be ez da bizi hemen baserritik hirurogei baserritik. Iñobez. Baserritik iñor be ez da bizi. Baserrixan biziko dia batzuek, ezta? Baiña kalia lana ein, eta baserrixan ortua edo ezebez. Piñua sartu, piñuak bota, ta piñuen dirua hartu. Baiña labrau baserrixa? Hemen begiratu ta garixa iñok be ez dau ereitten. Ta lehen etxe danetan garixa, etxerako ogixa eitteko garixa, danak hartzen zebe. Danak, hirurogei baserrik. Ta artua be bai. Ta patatia be bai. Eta berdurak be bai. Ta horrek danok.

- Zuk garixa ta... Garixa jotzen eta...

- Nik ein dot, garixa ebagitzen ein dot. Garixa josten ein dot holan be bai. Ifini igartuta euzkittan, ta harrixa jo holan, ta aliak etaratzen be ein dot. Eta makinia ekarri ta makinan be bai; sartu ta makiñiak ein eitten be bai. Ein dot, e, garixa josten! Eta gero harek lastuak ifini holan sendorrian --"sendorra" esaten jako--, lotu sokiakin ta ganbarara eruan lastuak gero ganauei emoteko ha lastua jaten. Baserriko ganauei.

- Sendorra esaten detsazu...?

- Sendorra eitten da.

- Lastuen...

- Lastua pillua ifini, sokia behian ifini, ta haren geñian ifini lastuak. Ta ein korapillua estututa, hartu bizkarrian, eta ganbarara eruan. Ganbaria da habitaziñotaik aparte egoten dana baserrixan. Ta han tolostauta ifini harek danak. Ta gero harek balio dau ganauei jaten emoteko. Ha, gero, ha lastua ganauak jaten dabe ha garixa kendu jakon lastua. Ta ha garixa eitten da, gero makina batekin garbittu eitten da. Kentzen jakoz harek daukezen desperdiziuak eta lagatzen da alia. Ta ha alia errotara eraman, porke errotia be bagenkan.

- Nun zekazuen? Inguruan?

- Bai, baserriko onduan. Baserritik, ba, egongo zan lauhun metrora edo holan errotia. Ta ha errotia izengo zan, porejenplo, ba, hamasei bat edo hamazortzi bat laguneren errotia. Ta han txandaka, txandaka, txandaka, bakotxak bihar dabena eitten zeban errotan uruna ein. Uruna ein errotan.

- Eta, esaten dozu, errotia ze zan, elkarte moduko bat edo?

- Errotia zan soziuena, sozio mordo batena.  
- Eta baten bat egoten zan han zaintzen?  
- Ez, iñobez. Errotia dau itxitta, ta dau giltza bat. Ta harek giltziak eitten dau sozio guztien txandia eitten dau. Ha txandan faten da. E? Gaur neri tokatzen jata, bixar nere bezinuai, harek pasatzen dotsa bestiai, harek pasatzen dotsa bestiai, harek pasatzen dotsa bestiai. Txandan, txandan, txandan, ha giltzia ibiltzen da. Eta bere txandia danian ein bihar dau uruna. Eta gero hurrengoko txandara arte itxein ein bihar dau. Ta holaxen funzionatzen zeban.

## 14. Errotara, plazara

- **Erref:** ELG-003/019
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

### Laburpena:

<p>Plazara eta errotara joateko astoa erabiltzen zuten. Errotaren inguruko azalpenak. Irina eralgi. Umetan egin beharreko lana.</p>

### Transkripzioa

- Ahaztu aurretik, plazara zuk gauzak-eta zelan eruatzen zenduzen?  
- Astuan. Astuan.  
- Eta errotara...  
- Errotara be astuan. Garixa zorruan sartuta errotara astuan. Eta gero uruna ein, ta astuan ekarri errotatik.  
- Baiña [... pentsatzen] dot garixa igo eta aittak eingo zebela, ez?  
- Bai, bai, bai, bai. Etxian badakixe zelan ein. Neuk be badakit zelan ein garixa. Emoten jako martxia errotarrixai, martxia emoten jakon, ta ifintzen zan holako ontzi baten, ifintzen da garixa zuk eruandakua. Ta harek pixkaka-pixkaka, pixkaka-pixkaka, aldiko dozenatxo bat ale, dozenatxo bat ale, botatzen dittu goittik behera harrixai. Ta harrixak eitten dau bueltaka-bueltaka, bueltaka-bueltaka, eitten dau uruna. Ta ha uruna urtetzen dau askatxo batera. Ta zuk han askan paliakin hartu ta sartzen dozu zakuan. E? Sartzen dozu zakuan, ta ekartzen dozu zakuan etxera. Ta ekarri etxera, ta gero etxian dare holakotxe "bahia" dauka izena, "bahia" dauka izena. Bahian ifintzen dozu ha uruna eta eitten dozu, daukazu... daukazu armaixo bat ogixa eittekua, ta han eitten dozu "eralgi" dauka izena. Eralgi. Ifini bahian ha uruna ekarri dozuna, ta han txiki-txaka, txaka-txaka, txaka-txaka. Porzierto, oso aburridua zan neretako, ta askotan tokau jatan eittia. Ta amak esaten zoztan: "Badakizu zer? Ez aburritzeko zuk kantau, kantau zuk, ta erain bahiai. Kantau ta kantau ta erain bahiai garboso". Badakizu, neskatillia aspertu bahiai, holan, han iñor ez dauen lekuan, norbera bakarrik hari ereitten ta... "Zuk kantau, kantau zuk". Zelako ama ona nekan, e? Neukan ama bat onaua! Aitta be bai, e! Nik neukazen gurasuak...

## 15. Familia giroa

- **Erref:** ELG-003/020
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Familia giroa. Ume-umetatik lanean. Jateko ohiturak; bakoitzak bere ontzia. Josten ikasten baserriz baserri. Amamak esandako ipuin-esaerak.

### Transkripzioa

- Zelako ama ona nekan, e? Neukan ama bat onaua! Aitta be bai, e! Nik neukazen gurasuak ejenplarrak. Hainbeste konflikto zeuken, hainbeste falta zeuben, ta sekula ez neban ikusi alkarri kontestaziñotxo bat emoten be ez. Ejenplarrak gurasuak, e! Negarguria emoten dosta akordatzia! Ta ama ona, e? "Zuk kantaixu, kantau ume, kantau, zuk holan bizkorrao eingo dozu". Danak ezin zittuan berak ein, ta neri tokau jatan txiki-txiki-txikittatik biharrian ikesi biharra tokau jatan, porke falta zan etxian, falta zan.

Fregaua-ta, fregaua-ta eitten-ta; txiki-txikittatik fregaua eitten-ta. Ta oin fregaua eittia ez da ezer. E? Oin fregaua eittia... ur berua ta fairy ta fi-fi-fi eitten dozu. Han, ur berua zerian, suan berotu bihar balde baten ura, ta gero ha eruan fregaderara. Fregadera txiki-txiki-txiki bat, hamar lagunen ontzixak, ta bakotxak bere platotik jaten giñuan, e! Orduan be, e!. Ta geruao, ni geruao ibili nitzan josten ikesten, ezta, baserririk baserri, eta makiña bat etxetan erdittik jaten zan. Erdixan ifini bai babak, ta handik karriatzen zeuben. Ta gure etxian bakotxak bere platua zekan. Bakoitzak. Bai. Baiña ama...

- Asko aldatu dia gauzak...

- E?

- Asko aldatu diala gauzak, e?

- Asko aldatu dia. Zuk ez dakixu, nere generaziñuan ze diferenzia ein dan, ein dan. Bueno, bueno, bueno! Ezin leike kontau be ein! Baiña orduan be personak bazerezen onak, e! Porke nik euki nittuan guraso batzuk... oso guraso onak euki nittuan, ejenplo ona emotekuak. Zelako onak zian! Ta formalak zian! Ta religiosuak zian. Ta amama be bai. Amama zazpi bat urte neukanian-edo hil zan.

- Zeuokin bizi zan bertan?

- Bai, bai, bai. Bai. Nere aittan ama zan. Bai. Eta, gabian, silla danak bakotxa bere lekutan kolokau eta sukaldia garbittu barik ondo ez [euen] fateik, e! Harrixa sukaldian lurrian, e! Baserrixan, harrixa. Ta amamak esaten oskun: "Hemen aingeruak ein bihar dabe dantzian, eta hau geldittu bihar dau garbi". Eta dana garbi-garbi-garbi eraitten zoskun sukaldia ohera fateko, hemen dantzian ein bihar dabela aingeruak eta. Amamak hori. Amama zan kuriosa-kuriosa-kuriosia.

## 16. Ama ipuinlaria

- **Erref:** ELG-003/021
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:43:08. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

Ama ipuinlaria.

**Transkripzioa**

- Bai, bai, bai, bai.

- [...]

- Ez, ipoiñik ez nai akordatzen. Ama zan ipoinlarixa. Nere ama zan... asmau eitten zittuan, gaiñera! Ume danak berari begira eukitzen zittuan! Enee! Konejotxo batena asmatzen badau, harek konejuak eingo zittuan egundoko saltuak, fango zan basora, etorriko zan bueltan... iñun dianak asmatzen zittuan umiendako ipoiñak! Bai. Sorgiñenak-eta orduan asko zeozen kontuak, e!

- Bai? Gogoratzen zara zeozetaz?

- Bai, sorgiñenak eta. Enee! Akordatzen nai, bat kontatzen zeban...

**17. Sorgin kontuak**

- **Erref:** ELG-003/022
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:44:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

Sorgin kontuak. Mirenek ere artilearekin haria egiten ikasi zuen; aitak erakutsi zion.

**Transkripzioa**

- Akordatzen nai, bat kontatzen zeban. "Hau amamak kontautakua da". Bai. Orduan, oin, oin, oin... ene! Nora fango naizen! Goruetan eitten zeben orduan. Akordatzen jatzu goruetan eitten zebela? Holan harixa eitten zebela, e? Neuk be ein dot harixa, e? Galtzak eittekua. Nik ein dot galtzak eittekua, baiña harek eitten zeben oheko izarak-eta eittekua eitten zeben. Nik galtzak eittekua ein dot, e! Neuk be ein dot. Askó gustatzen jatan, gaiñera. Aittai ikasi notsan. Bai.

- Gero kontauko dostazu...

- Gero, oin sorgiñena esango dot.

**18. Sorgin kontuak**

- **Erref:** ELG-003/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

Sorgin kontuak kontatzen ditu.

**Transkripzioa**

- ...oin sorgiñena esango dot, sorgiñena. Etxe baten zebizen goruetan. Holan, eitten, ezta, gabian. Harek eitten zeuben, ba, holako argirik ez zeuken, eta beste argi bat. Ez dakit zela zeukan izena harek argixak... Ez dakit zela zeukan izena harek argixak. Izen bat zekan. Ee... ezin nai konturatu ze izen zeukan. Baiña faroltxo baten barruan egoten zan. Bai. Ez dakit nola zeukan izena. Ta harekin goruetan, ezta? gizona ta andria. Badihardue goruetan. Ta katu haundi bat... katu haundi bat bentanara. Ta "Gizona izenda, goruetan?", katuek esan otsen, eta bestiak: "Katua izenda, barriketan?". Joten dau goruakin katua bizkarrian, ta urrumaka-urrumaka hor doia katuoi. Eta hurrengoko egunian, auzuan bizkar-hazurra apurtuta euela atsua. Holakotxiak. Sorgiñen kontuak dia horrek, e!

**19. Sorgin kontuak**

- **Erref:** ELG-003/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:46:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

Sorgin kontuak.

**Transkripzioa**

- Hau amamak kontautakua, ta amak be...  
- Amak be... beste bat be badakit. Bazoian... Hau, lehenau pasautakuak esaten zittuen erak, e! Erei pasautakuak ez dia honek. Eta badoia mutil bat nobixiagana, Uberatik Bergarara. Badoia ta egundoko erromerixia Ubera baiño beheratxuao! Harek parajiak duaka izena... [Lezane] dauka izena. Ta han [Lezane] egundoko erromerixia! Neska ederrak eta jo-ta eraten ta egundoko erromerixia! Ta mutilloi geldittu da, "Honek dittuk neskak!" eta geldittu da, ta emon dotse berai be eraten. Sorgintzekua zan eratekuoi. Eta eraten badihardu, ta "Jesus! Hau da gauza ederra!". Ta "Jesus!" esan dabenian, jo-ta danak baltz-baltz inda, nun dianik be ez sorgiñok! Danak desaparezidu! "Jesus" ez zan esan bihar, ez zan, religiñoakuak harek ez zian ta. Danak nun dianik be ez! Ta bera, bere baso baltzoi eskuan dabela, geldittu zan bakarrik. Ta holakotxe kontuak? Bueno!  
- Orduan, entzunda etxian, ez?  
- Entzunda etxian.

**20. Sorgin kontuak**

- **Erref:** ELG-003/025

- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:46:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

Sorgin kontuak. Anbotoko "señoria".

**Transkripzioa**

- Orduan, entzunda etxian, ez?
- Entzunda etxian.
- Anbotoko señora ta...
- Anbotoko señorieta be bai! Bai. Anbotoko señorieta ez dakit zela zan. Ene! Guk... Anbotoko señora zaintzen egoten giñan ez dakit zenbat bidar. Ta igual izarra ikusten giñuan... Badi... egoten dia kometia holan "jjiii" faten dianak? Bete zain egoten giñan. Ta baten ikusi giñuan. Aaa! Guk izarra danik be ez, e! Anbotoko señora zan ha, e! Bere buztana atzian dabela. Guretako Anbotoko señora zan ha, e! Bueno...! Beste bat be bazeuan. Zela zan hori? Neri ahaztuta horrek gauzok. Lagata, ez dakizu? Kontau be ez. Hone be ez dotset nik horrek kontau.
- Bai...
- Bai? Kontau dittuzu?
- Goruetan eitten zebana, ez dakizu? [...] gizona zala ta...

**21. Sorgin kontuak**

- **Erref:** ELG-003/027
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:47:34. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

Eskopeta agertu zenean, orduan desagertu ziren sorgin kontuak.

**Transkripzioa**

- Sorgiñen kontuak.
- Horrek eskopetia agertu zanian danak akabau zian.
- Danak akabau zian.
- Neri...
- Noiz akabau zian?
- Eskupetia urten zebanian ya...
- Eskopetia agertu zanian, tirua, desaparezidu zian sorgin danak. Baiña hara arte nahikua gerra emon zeben, e! Hara arte emon zeben...

**22. Sorgin kontuak**

- **Erref:** ELG-003/028
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

<p>Sorgin kontuak. "Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik Akelarrera".</p>

**Transkripzioa**

- Beste bat be bai. Zela da? Aa! Oin be ez jata akordauko. "Sasixen azpittik eta laiñuen gaiñetik akelarrera". Hau be bazan. Igurtzi-igurtzi ein... Suen azpittik lapikotxo bat etara, hautsen azpittik. Lehen, badakizu, beheko sua zan. Handik etara lapikotxo bat ta igurtzi-igurtzi ein danian eta... Andra batek zeukan sorgiñen famia, baiña gizonak ez ekixen eta zainddu eitten eban ze eitten daben. Pentseizu, bixen bittartian ohian ez zan itxuria egoten berakin. Bueno... Kustiñua da, gizonorrek obserbau dau: lapikotxo bat etara hautsen azpittik eta igurtzi eta esan dabela: "Laiñuen gaiñetik... sasixen gaiñetik eta laiñuen azpittik akelarrera" eta desaparezidu jako sorgiñoi. "Bai? Topauko juat nik hori nun dauen". Etara berak be lapikua, igurtzi-igurtzi-igurtzi ein dau ta esan dau: "Sasixen azpittik eta laiñuen gaiñetik" ez dau, ba, esan? Ta lehelengo sasipetik pasau bihar, ta gero laiñuen gaiñetik. Dana urratuta allegau zan akelarrera! Ta gero han zeuan Martiña [Zapolos] izenekua, ipurdixan mun emon bihar jakona, sorgin haundi bat han, Martiña [Zapolos]. Ta ez dakit, ba, zelan... Zela zan gero, hara... Hara allegau zan ta harek igarri ein otsan sorgin barrixa dala. Baiña ze esan otsan ahaztu jata. Ze esan otsan harek...?

- A! Nik badakit.

- Ze esan otsan?

- Zan...

- Ze esan otsan?

- Beran... Klaro, eruan zeban eskuan abarkia jostekua.

- Abarkia jostekua eruan zeban! Bai.

- Ta, orduan, allegau zanian ta hari mun emotera oianian, ze ein zotsan? Mun emon biharrian, sartu hori.

- E, zera...

- Eztena edo ze...?

- Eztena dauka izena, zirixa.

- Abarkia jostekua edo zan.

- Abarkia jostekua izeten zan. Bai.

- [...]

- Si. Oin ahaztuta nik.

- [Esaten dotsa]: "Sorgin berri, zorrotza dek mutur hori".

- Bai, hori da.

- "Nik pasau dittuten sasixak eta laiñuak pasatzeko bihar be bai!".

- Bai, ba, oker esan zeban. Beran andriak esan zeban: "Sasixen gaiñetik ta laiñuen azpittik". Ta berak konfundiduta ze esan eban? "Sasixen azpittik ta laiñuen gaiñetik". Baiña abarkia josteko zirixoi eruan eban eskuan. Bueno, honek ez dia kontatzekuak be, e!

- Bueno, ba! Klaro baietz!

- Horrek dia antxiñako ipoiñak...

- Antxiñako kontuak.

- ... "que han venido de tu abuela..."

- Polittak...

- "... de la madre a ti..."

- "Sí, sí, de la madre. Sí".

- "...y luego tú me has contao a mí y por eso sé yo".  
- "Sí, sí. Fíjate, yo tenía olvidao y tú en cuenta. ¿Ves? Ésta contará algún día a otro. Sí."  
- Bes? Hori da politta, ez?  
- Bai.

## 23. Sorgin kontuak

- **Erref:** ELG-003/029
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:52:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

### Laburpena:

Sorginen inguruko kontuak. Aurreko belaunaldietakoek guztiz sinesten zituzten kontu horiek guztiak. Aitak eta amak irakurtzen bazekiten.

### Transkripzioa

- Eta zuek umetan eta, halako, sorgin kontuak eta entzunda, billurra senttzen zenduten?  
- Billurra be bai e. Nere aitta difuntuai nau entzunda, Eibarren ibili zan ofiziuari. A bai, e nere aitta difuntuai nau entzunda, Eibarren ofiziuia ikesten ibili zan, arotzerixan ikesten bai, eta Eibartik hona etorri ein bihar oiñez. Eibartik nere baserrira oiñez etorri bihar. Eta haren billurra! Haren billurra, sorgiñen billurra. Bai, erreka onduan erropak garbitzen ta ibiltzen diala sorgiñak, eta errezatzen bide guztian, errezatzen, sorgiñik ez daixen ikusi! Aitta e! Hamazortzi urtekin ta hogei urtekin. Nere aitta hori pasatzeakon e, ze siñistu ta ibiltzen zien. Baiña nik uste dot...  
- Ignorantiak zian...  
- Ignorantiak zian, eta persona gaiztuak be bazerezela eta bestiak sustatzen ta ibiltzen zianak. Hori gure aitta baiño lehenaokuak e, ibiltzen ziala izaria hartu holan da sorgiña dan plantak eitten da, ibiltzen ziala e.  
- Orduan e halako...  
- Okerra eitten.  
- Halako beldurra e...  
- Bai, bera billurrez, denpora guztian errezatzen bidian, sorgiñik ez daixen topau, bidian.  
- Dana dala, aitta eskolara ta juango zan, ez?  
- E bai, bai. Nere aittak bazekixen, eskribitzen da leitzen ta...  
- Periodikua ta...  
- Bai, periodikua ta leitze eban, aittak bazekixen, bai, bai bai. Amak leitzen ondo ekixen, baiña eskribitzen ahaztu in jakon.

## 24. Ama nolako zen

- **Erref:** ELG-003/031
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:53:00. **Bukatu:** 00:53:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena:**

Ama Andresa Arregi. Amaren inguruko kontuak.

**Transkripzioa**

- Zein zan aman izena?

- Andresa. Andresa Arregi, bai. Baiña esan otsat e nik honi zelako ona zan gure ama, ona e. Honek asko ezautu zeban. Nere alabiak eta asko ezautu zeben nere ama, bai. Txikittan e berak zaintzen zittuen honek eta, bai ta gobernadoria zan, oso ume gobernatzaillia zan, umiei ondo esan ta... Jartze jakozen ume pilla bat altzuan bai ta bera tebeua leitzen. Ta leitzen etxakon ahaztu, bai ba, beti leittu itte eban ta! Etxakon ahaztu! Ta tebeuak leittu ta ipuiñak kontau ta... Bueno! Pegauta eukitzen zittuan ume guztiak bueltan harek! Bueno... oso ondo.

**25. Aita eta politika**

- **Erref:** ELG-003/032
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:54:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

**Laburpena:**

<p>Aita eta politika. Abertzalea zen. Gerraostean, karlistek agintzen zuten herrian, eta zigorra ezarri zioten.</p>

### Transkripzioa

- Aittak esan dozu periodikua hartze zabala ta... anaiana, edo lehengusuren batena.
- Bai, ba, ba, bai. Ta muy poli, politikitua zan aitta e.
- Zer zan?
- Politikitua zan aitta.
- Bai?
- Bai, bai. PNVkua zan aitta. Klaro, orduan besteik ez zauan eon be. Orduan ez zeuen Herri Batasunekoik ta ez zeuan enredorik ezebe. Orduan zeuan...
- Gauza bat.
- Gauza bat. Ta haixe zan bera, Euskadi maittia, bai.
- Karlistak eta hemen Elgetan bazeren?
- Asko. Gerra, gerra pasau zanian ta, karlistak ainddu eben hemen. Gerra pasau zanian amenazo haundixa euki zeuben. Gure gurasuak, nere gurasuak, nere aitta ibilli zan eztakit zenbat, hilabete terdixan edo ibili zan duan, debalde lanian, erain zotsen kastigua. Kastigua euki zeban, bai. Eta derezen hemen e horma danak eta jausitta eta etxe danak apurtuta ta, bide danak apurtuta ta, dana bonbardeauta zeuan bai, ta harek e alanbradak batu ta, etxia konpondu ta eitten debalde ibili zan. Nere aitta zahar-zahar-zahar eindra geldittu zan e disgustuakin. Beti lagunak izen zianak gero karlistak zielako despreziuak eta eitten otsen. Ta bera ei zan fiña, formala...

## 26. Gerraostean Elgetara itzulera

- **Erref:** ELG-003/034
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:55:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

<p>Gerraostean Bizkaitik etorri eta baserrira sartzen ez zieten uzten. Herriko karlista ezagun batek lagundu zien.</p>

### Transkripzioa

- Ta bera karlistia zan, e? Bai, baina gaitzizena Judas zeukan izena, Judas esate otsen gaitzizena. Ta guretako izen zan...
- Oena.
- Guretako izen zan onena. Etorri giñan Bizkaittik ganauekin ta hortxe baserrixan sartu giñazen. Ez zoskuen geure etxera faten lagatzen ta. Eta honetxen aittittak etorri herrira ta esplikaziñua emon zotsen. Aber gizona etorri bere ganauekin herrira ta bere etxian sartzen laga ez? Aber hori zer da! Eta bueno ba, fateko. Ta hortxe, horretxen etxian hiru egun edo in giñuzen eta geure baserrira pasau giñazen, bai.

## 27. Aita eta politika

- **Erref:** ELG-003/035
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:58:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

## Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

## Laburpena:

<p>Aita eta politika. Gerraostean, Pazko Egun batean irratitik "Gora Euskadi Askatuta" entzun zuen.</p>

### Transkripzioa

- Dana dala, ez zan e normala izango orduan, ez? Basarriko gizonak e ba irakurtzen jakitzia...

- Bai...

- Periodikua erostia...

- Ez zan normala e...

- [...]

- Bai, esateotzut ba, gure aitta e prosperotxua zan, era prosperotxo. Ta entendidua zan, e holan politikan da entendidua zan. Ni neu, ezebe ez nekixen, nik biharra ta biharra ta biharra ein dot. Oin bai, aittenai jarraitu dotsat, ezta, baiña, ni nik ez dot euki holan entusiasmoik ezetako e, nik biharra ein dot, "latigo" ta "latigo", hoixe, bizimodua etaratzen. Baiña nere aitta bai e, nik akordatzen nai ordurako e gerraostia zan, ta honek zerezen aintzen ta Donostia ta horrek danok bakixu, e danak e kontrarixuak, ezta? Eta Pazko Egun baten radixua ifinitta zeuan eta ba orduan dana e zan Francon gauzak eta radixua, da! gelditzen da eta esaten dau "Gora Euskadi Askatuta!" radixuak. Donostian in zebe e bai kabliak bai eta bota zebe hoixe ta dra! atzera laga ta kitto. Da aitta tente-tente zeuan armaixo onduan entzutzen sukaldian bai, ta entzun dau bai, ta eundoko near malkuak urten dotse "Ene ba! Oindiok batzu-batzuk bizi dittuk eta!"

- [...]

- Hauxe da gizona.

- Bai...

- Ezautzen dozu ezta?

- Bai. Esaten genduan hori aitta espeziala zala...

- Bai, bai.

- Zuk e Uberan eskolara juan eta karteruari hartzen zetsazunian periodikua ta...

- Bai, bai. Periodikua "Euskadi".

- Inguruko umiek eta ba, zeoze esaten zetsuen ero? Ze da hori edo...

- Ez, ez, ez, keba.

- Arrarua ez jakuen eitten?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Iñok ez zoskun sekula ezer esan. Baiña periodikua... Nik oindiok ikusten nao orduko periodikua, nahixo neuke ointxe bat ikusiko baneu! Orduko periodikua, Euskadi. E, haundi-haundi-haundixa zan baltza e lelengoko euskadi. Si, etortzen zana portadan, si...

- Aitta esan dozu oso abertzalia zala...

- Oso abertzalia zan aitta, oso zan abertzalia. Era abertzale... era... Esan dotsut ba, "Gora Euskadi Askatuta!" bota zebe Donostiatik radixuan e ta radixua ifinitta zeuen eguardiko ordu batak edo bazkaltzeko ordua ero holaxen zan. Ta Donostiatik dana debekatuta zeuanian e ta in zebe, esaten zebe gero kortau in zebela e radixua, kortau bai ta hori bota ta atzera tak in zebe. Ta hoixe bakarrik esan zebe "Gora Euskadi Askatuta!", Pazko Eguna zan, Pazko Eguna zan. Si, ta aittai jota negar tantak be urten otsan "ze esan jok horrek?" esanda, "ze esan jok, oindio batzu-batzuk bizi dittuk!" Bai, eske ez zeuan ba berbaik be eittek, ni palabra, ez zeuan berbaik eittek!

## 28. Erljioaren indarra

- **Erref:** ELG-003/037
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:58:56. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

Erljioaren indarra. Gurasoak oso fededunak. Dotrina guztia ikasi beharra zegoen jaunartzea egiteko. Pazkoa sasoiari, txartela.

### Transkripzioa

- Ama eta aitta, esan dozu baiña fede haundikuak ziala, ez?
- Bai, bai, bai. Religiosuak eta fede haundikuak zian. Eta formalak gaiñera e. Oso, nik e satisfaziño haundixa dakat horrena, nere gurasuak ziala oso onak.
- Orduan e, abadiak eta indar handixa zeken...
- Bueno, abadia zan dana.
- Berak, berak [...]
- Abadiak, abadiak etxian be ainddu eitten zeban, kanpoko etxian be, abadiak. Ni e, nik e dotriña ikasi neban Don Eusebio Bereziartua. Etxata ahaztu, neretako ona izen zan, bederatzi urtekin komunio haundixa in neban. Ta ezeuan dotriñan letraik nik ez nekixenik. Hori ikesi neban e, dibidir ez baiña, hori bai e.
- Dotriñara ze juaten ziñazien...
- Dotriñara...
- Astian behin?
- Bai, ta etxiak ikesi! Etxian ikesitta! Ni pekataria ta, bueno, bueno, iñun dianok e nere [...] eta kredua ta salbia ta... Dotriñaak daukazen letra danak, pekatu kapitalak eta beste guztiok nik danak nekitezten. Todo sabía.
- Orduan e...
- Komu... Bigarrena... Dotriña dana ikasitta ein bihar zan bigarren komuniua ta beatzi urtekin ein neban bigarren komuniua, dotriña dana ikasitta. Ez zeuan letrarik nik enekixenik. Dotriña.
- Komuniua eitteko txartelen bat edo bihar... Bihar izaten zenduen edo...
- Bai. Hori gero.
- Hori gero.
- Urtero-urtero in bihar da pazkuaskua. Ta ha txartela emote zeban sakristiñan, abadiak. Ta etxeko danendako etortzen zan txartela. Bakotxa bere izena atzekaldian ipinitta. Da baten bat badau eztabena eiñ, han agertuko zan gero elixan. Bai, pentsaizu, que esclavidud! e? Bai, baiña ez zeuan iñor in bihar ez dabenik e. Konfesiñua ta komuniua urtekua bandiduenak be ein in bihar zaban. Ya está!

## 29. Jaunartzearen inguruko kontuak

- **Erref:** ELG-003/038
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

**Laburpena:**

<p>Jaunartzean arropa berriak. Jaunartze handia eta txikia. Gero ospakizuna etxean. Beti izaten zen jateko bereziren bat, etxean egindako arroz-esnea, esaterako. Dotrina.</p>

**Transkripzioa**

- Kumunua ta ein zenduzenian erropa espezialik...
- E? Erropa espezialak!
- Zelebrasiñoren bat edo eitten zenduan?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai. Erropa barrixak. Nik oindio bistan daukat zelako soiñekuakin iñ neban komunio haundixa. Txikixa ahaztuta daukat, baina haundixa... Txikixakin mantillia erre notsan beste bati. Kandelian fan biha zan eta beste aurrekaldekuai su emon notsan kokotian. Bai ba, kandelia ta mantillia ta trastiak... Mantillia holan kolokauta eta nere aurrekaldekuai su emon notsan. Zein zan oin ahaztuta daukat, baiña aldamenetik etorri zan beste bat eta emetau zotsan bizkor e! Komunio haundixa ze erropakin in neban daukat bistan ta fotografixia be bada gaiñera haren soiñekuena.
- Zelebrazsiñoren bat ein zenduen etxian?
- Bai, gero etxian zelebrazsiñotxua beti itten zan. Bai, oilo haunditxuaua ero, ingo zan zezer. Edo arrozkoletxia gaiñerako edo... Eztaizu? arrozkoletxia be postre ona zan e, baserriko esniakin. Ai nik oin zenbat bidar kentzen dotsatenian hemen tapoia esniai, esaten dot "hau ez da esnia ta ez da ezebe! Ezebe ez dauko honek gustoik esnianik". Baiña... Han, hare arrozkoletxia, hombre! Etxeko baserriko esnia, holako natia eitten jakon esnia. Hori, hori, horixa ederra... Harek bai! Zezegaittik hanka zuzenak euki giñuzen guk, esnia edanda!
- Dotriña esan dozu letra guztiak...
- Letra danak!
- Letra danak jakiten zenduzela... E dotriña liburua ze zan orduan erderazkua?
- Dotriña txiki-txiki txikixa zan, baiña lodi-lodixa e. Guk ikesi giñuana, txikitxua baiña potolua e.
- Eta erderaz dana? Ero?
- Ez, euskeraz izengo zan e.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-21*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com